

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

292 - 2021eko ekaina



NATURAK EMANA,
BERTATIK SORTUA

Aniztasuna erdigunean

Lekunberriko Ibarberri eskolako 3. mailako A taldeko ikasleek "Aniztasuna Aberastasun" eskolen arteko lehiaketako saria jaso dute. "Ni desberdina naiz" izan da lehiaketaren gaia, eta 105 lan aurkeztu dituzte Nafarroako 1.900 ikaslek. Epaimahaiak bederatzi lan saritu ditu, eta horietako bat izan da Ibarberri eskolako ikasleek egindakoa: "Mazedonia". Ikasgelako lagun guztiak irudikatu nahi izan dituzte mazedonia batekin, azalduta denok ezberdinak garela, eta ezberdina izanda originala eta berezia zarela. Mezu argi bat bidali nahi izan dute: "Guk argi daukagu, denok ezberdinak gara eta harro gaude! Eta zuek, badakizue, ezberdinak bazarete zortedunak zarete. Eta ez aldatu inoiz!". Zorionak egindako lanagatik!




ASEGURU AHOLKULARIAK

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

- 📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
- 📞 616 457 540
- ✉ construccionesganarbe@gmail.com
- 📞 636 827 846

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkarte.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Labrit, Ricardo Bosch, Beti Kozkor, Mattie Garaikoetxea, Printza, Lekunberriko Udala, Larraungo Udala, Mendukilo, Ioseba Ordoki, Igor Mitxaus, Hodei Etxarri, Jexux Oreja, Edurne Martinikorena, Ura eta Lurra, Ibarberri Eskola eta Udalbiltza.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:

Araitz Amatria.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

LABRIT
MULTIMEDIA

04

KUXKUXEAN Ekaineko zorion agurrak.

08

ELKARRIZKETA



Gotzon Huegun.

12

IZAN GAZTE Porno: errealitatea ala fikzioa?

14

BATZARRE Aldazko harrobiaren proiektua.

16

ERREPORTAJEA



Lekunberriko ur hornikuntza.

20

KIROLA Araxes, sokatirako txapeldun.

22

ERREPORTAJETXOA Autoa konpartitzen.

25

KULTURA Geuretik Sortuak programa.

28

PLAZATIK PLAZARA Amavirren omenaldia.

31

AGENDA



**URREZKO EZTEIAK**

Conchi Liciaga Zatarain eta Santiago Cruz Leunda, 50 urte ezkontuta.

1971ko maiatzaren 27an ezkontu ziren Atalluko elizan. Geroztik 50 urte pasa dira, eta elkarren ondoan jarraitzen dute.

Conchi Atallun jaio zen, Olatxo baserrian. Santi, Tolosan jaio zen eta Lizartatik Atallura salto egin zuen Conchi ezagutzearan. Ezagutu zirenetik elkarrekin daude.

Familia ederra osatuta, beste makina bat urte jarraitzeko asmatan. Famili giroan elkartzen garen guztietan bezala, horrelako egun ugari ospa dezagula elkarrekin!

Zorionak eta segi horrelaxe urte askoan, elkarri lagunduz eta elkar asko maitez!!

**Eneko Oreja Altuna**

Ekainaren 23an, 10 urte.

Bi esku bete urte!!! Zorionak, artista!! Egun politte pasa ta segi holaxe, beti bezain alai!!! Muxu handi bat famili guztien partez!

**Kaiet Eskamendi Goikoetxea**

Ekainaren 16an, 7 urte.

Zorionak, Kaiet! Oso ongi pasa eguna eta muxu handi bat familia guztiaren partez.

**Goreti Estanga Jareño eta Zuriñe Estanga Jareño**

Ekainaren 16an, 8 urte eta ekainaren 30ean, 11 urte.

Zorionak, bikote!! Ongi pasa familia eta lagunekin zuen urtebetetze eguna. Segi orain arte bezain alaiak izaten. Muxu pottolo – pottolo bat, aita eta amaren partez.

Amalur Leoz Urbizu

Ekainaren 16an, urte 1.

Zorionak zure lehen urtebetetzean, Amalur!! Egun ederra pasako dugu! Segi beti bezain alai. Muxu erraldoi bat etxekoan partez.

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!

Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11

31870 Lekunberri - Nafarroa

Tel.- 948507319 Fax.- 948604792

bacalaoselkano@jet.es

www.bacalaoselkano.com



EH MENDI ERRONKA, BERTAN BEHERA

Euskal Herriko Mendi Erronka mendi lasterketa bertan behera gelditu da bigarren urtez. COVID-19a dela eta, aurten ere ezin izan da egin, baina antolatzaileak baikor daude, eta espero dute 2022an egin ahal izatea 67km dituen lasterketa.



LGTBI+FOBIAREN AURKAKO KANPAINA

LGTBI+fobiaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen maiatzaren 17an, eta Lekunberriko Udalak horren aldeko kanpaina bat jarri du martxan, Hormak elkartearekin batera. Ekainaren 28an izango da LGTBI Komunitatearen Nazioarteko Eguna.



BARATZE PROPIO BAT AMAVIRREN

Pandemia garaia gogorra izan da Amavir zahar etxean daudenentzat, baina, hala ere, ez dute ilusioa galdu, eta horren erakusgarri da egoitzan bertan egin berri duten baratzea. Aurrerantzean, beren barazkiak dastatu ahal izango dituzte.

► Ainhoa Iriarte (Arribe)



Gure bailaran badugu istorikoki pisua konformatzen zailak ginen bidea zen malkartsua inkisizioa hortaz ez zen geratu itsua denari kontra eginez pizten baikenuen sua izan ginen baztertuak sentituz bai mespretxua guregan zuzendu zuen botereak abusua sufritu zuten guztiei egin nahi diet apua.

Egin zenuten aurrera zuen ideia sinismen bizi zenuten nola ez nahikoa min eta krimen gure bailaran izan zen ikaragarri hondamen tinko, zentzuz eta indartsu borroka eta sentimen etxeetan uste baitzen mugak zirela zoramen zinetelako gu gara sentitzen dugu miresmen zuen oinorde alaiak askatasuna ahalmen.



ERTZILLA UR PARTZUERGOAREN EGOERA

Ertzillako Ur Partzuergoa osatzen dugun Kontzejuak (Etxarri, Alli, Arruitz, Mugiro, Iribas) eta Larraungo Udala arduratuta gaude partzuergoaren egoera dela eta.

2017az geroztik, Ertzilla-ETAP hodiaren zati bat berritzeko lanak egiteko asmotan da partzuergoa (1.650 metroko tartea berritu behar da); obra hori Nafarroako 2017-2019ko Tokiko Inbertsio Planaren barruan sartzen da. Gaur egun, ordea, obren zuzendaritzaren kontratazioa besterik ez da egin, eta hori ere oztopo askorekin.

Gure kezka gero eta handiagoa da: lan horiek udan egin behar dira, eta udako denboraldia hurbiltzen ari da, baina badirudi aurten ere ezin izango dela obra egin. Hoditeriak hainbat kalte ditu eta ur asko galtzen du puntu batzuetan. Halaber, sakoneko ponpa ordezkatzeko premia dago, hogeitaz urte baitaramatza lanean, eta hori gabe, ezinezkoa izango litzateke ur-hornidura bermatzea. Orain dela hilabete batzuk, Nafarroako Gobernuak ordezkariekin zenbait bilera egin genituen gaia onbideratzeko, eta hodiaren obrak egiteko plan finantzario bat bidaltzeaz gain, obrarekin jarraitzeko eta bonbaren gaiari heltzeko borondatea adierazi diogu. Momentuz, ordea, ez dugu erantzunik jaso.

Bestalde, partzuergoaren barneko funtzionamenduan dauden arazoengatik, bi urte daramatza erakunde ezin aktibaturik. Partzuergoak martxan jarraitzeko apustua egin dugu, eta ez dugu hitzarmen bat egiteko beharrik ikusten, Lekunberriko Udaleko ordezkariak iradokitzen duen bezala. Horretaz gain, esan beharra dago partzuergoko kontuek onartu gabe jarraitzen dutela, nahiz eta, Nafarroako Gobernuak partzuergoko kontuak aztertu eta eguneratu dituen.

Horrekin batera, 2020. urtean, eta Lekunberriko Udalarekin zenbait epaiketa izan ondoren, auzitegiek arrazoa eman diote partzuergoari, eta onartu egin dute partzuergoak eskumena duela Ur Tratamenduko Plantaren funtzionamenduaren kudeaketa erabakitzeke. Baina partzuergoa geldituta dagoenez, Lekunberriko Udalaren menpe jarraitzen du kudeaketak.

Azkenik, uste dugu partzuergoa osatzen dugun guztiek elkarrekin lan egin dezakegula: Larraungo eta Lekunberriko Udalek, Alli, Arruitz, Etxarri, Iribas eta Mugiroko Kontzejuak eta Nafarroako Gobernuak, partzuergoa bera eta herritarrei ematen dizkiegun zerbitzuak ahalik eta ongiena kudeatzeko, ura funtsezko elementua baita gure ingurunearen garapen sozial eta ekonomikorako, eta ezin dugu horrela jarraitu.

Camino Garralda (Larraun).

AGINTZA

Iruñean badago elkarte bat, izena duena, Nafarroako Pertsona Gutxitu Fisikoen Elkarte-Koordinakundea. Ez dakit zehazki noiz sortua den, baina kontua da, aspalditik ari dela martxan, eta, koordinakunde horretan, pertsona batek baino gehiagok parte hartu izan dugu, Nafarroa osoan zeuden eta dauden arkitektura oztopoak kentzen saiatzeko.

Neronek aitortzen dut, sekula santan ez dudala aparteko bokazio berezirik izan, lantegi horietan aritzeko, baina, bizitzan zehar, gizartean sarritan ikusten nuen premiak, behin eta berriz eraman izan nau afera horietan, sarritan aritzera, alegia, oztopo arkitektonikoak borrokatzea.

Zehazki ez dut gogoratzen zein urtetan izan zen, segur aski, 2000 inguruan edo lehenago, baina kontua da, urte hartan udal hauteskundeak zeudela, noski, eta PSNko Javier Iturbe jauna hantxe agertu zitzaigun, Koordinakundearen egoitzan, bere hauteskunde kanpaina egitera, eta, nagusiki, honako hauxe esan zigun, hau da, <Botoa ematen badidazue, hauxe eta hauxe egiten dut arkitektura oztopoak desagerrarazteko>. Baina, esateko moduarengatik, bazirudien, bozka berari ematen baldin bagenion, lan handia egiten zuela delako arkitektura oztopoak kentzeko alor horretan, baina, bestela, ez, eta nire iritiz, nahiko irudi txarra eman zuen, gure aurrean, behinik behin, bai baitzirudien xantaia egin nahi zigula, hots, botoa niri ematen badidazue, orduan, bai, orduan lan handia egiten dut alor horretan, baina, bestela, ez, edo antzeko zerbait esan nahi izan baligu bezala. Nik pentsatzen dut, barruan ez zela hura izaneren bere asmoa, baina, kanpotik, halako itxura kaskarra eman zuen bederen.

Oker ez banago, hautatua atera zen, hau da, Iruñeko Udaleko zinegotzi aukeratu zuten, baina, uste dut, elbarriok behintzat ez genuela nabaritu egundoko alderik onerako, hirian kendu beharreko oztopo arkitektoniko haien eremuan. Zer egiten diogu, ba?

Xanti Begiristain Madotz (Auritz).

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

ZURE IDENTIFIKAZIO DIGITALA
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN
ERABILTZEKO

ONLINE IZAPIDEAK
ITXARONALDIRIK
ETA MUGITU
BEHARRIK GABE

SISTEMA SEGURUA
ETA BERMEDUNA

ERRAZA ETA DOAKOA

MUGIKOR ETA
TABLETEKIN
BATERAGARRIA

GAKO BAKARRAREKIN
MAKINA BAT ZERBITZUTAN
IDENTIFIKATZEKO AUKERA
EMATEN DIZU:

- ERRENTA ETA
BESTELAKO ZERGAK
- LAGUNTZAK ETA
DIRULAGUNTZAK
- ZIURTAGIRIAK ETA
ERREGISTROAK
- ENPLEGU PUBLIKOA
- UDAL IZAPIDEAK: TAO,
ERROLDA...
- GIZARTE SEGURANTZA:
LAN BIZITZA...
- TRAFIKOA: PUNTUAK,
ISUNAK...
- HEZKUNTZA: BEKAK,
TITULUAK...
- ETA ASKOZ GEHIAGO...

Eskuratu al duzu cl@ve?

Erregistratu Cl@ven, administrazio publikoetan egiten dituzun
online kudeaketetan identifikatzeko modu erraz eta seguruan

OINARRIZKO ERREGISTROA



ERREGISTRA ZAITEZ ZIURTAGIRI DIGITALIK
GABE clave.navarra.es helbidean
"Ez dut ziurtagiri elektronikorik" hautatuz.



ONLINE SARBIDEA administrazio publikoetan
GEHIEN ESKATZEN DIREN IZAPIDEETARA,
Errenta Aitorpenera kasu.

ERREGISTRO AURRERATUA



Eskuratzeko, ZIURTAGIRI DIGITALA IZATEA
EDO HITZORDUA ESKATZEA BEHARREZKO DA
(kontsultatu zein den hurbilen duzun bulegoa
clave.navarra.es helbidean).



Cl@veren oinarrizko erregistroko IZAPIDEETARAKO
SARBIDEA, baita AURRERATUAGOETARAKO ere,
Gizarte Segurantzara edo Historia Klinikora
kasu.

NAN + PIN identifikazio sistemak, Errenta Aitorpena eta Nafarroako Gobernuaren beste online izapide
batzuk egiteko erabiltzen denak, oro har erabilgarri egoteari utziko dio irailaren 1ean.

Cl@ve sistema seguruagoa eta gailu berriekin zein beste administrazio
batzuekin bateragarriagoa da. Aldatu Cl@vera!

“Emakumeak omentzeko oso eskultura gutxi daude”

Jolasa eta esperimentazioa ezinbestekotzat jotzen ditu Gotzon Huegun artistak. Egurra eta harria lantzen ditu gehienbat, eta edertasuna bilatzen du, haren obra bat ikusten duenak piezarekiko erakarpena sentitzea. Azkaraten bizi da gaur egun, eta erakusketa txiki bat jarri du etxean bertan.

Nola ailegatu da Lasarteko eskultore bat Urraitzen magalera?

Duela hamabost urte etorri ginen. Mendi ingurura edota herri txiki batera joan nahi genuen bizitzera; baserri zaharrak ikusten aritu ginen Nafarroan, Iparraldean, Errioxan... Egunkaria irakurtzen ari nintzela, ikusi nuen Azkaraten terreno bat zegoela salgai, eta bikotekideak eta biok dagoeneko Azkarate ezagutzen genuenez, ba, ikustera etorri ginen. Ez zitzaigun burutik pasatu ere egin etxe bat eraikitzea, nik beste era bateko etxe bat nahi nuelako, historia zuen baserri bat. Baina etorri ginen, gustatu egin zitzaigun, eta horrela hasi ginen. Bi urtez-edo aritu ginen

“Lehiaketa bat irabazteak diru pixka bat ematen dizu, animoak, baina ez dago jarraipenik”

etxea eraikitzen; gero, bi urte pasatu genituen hemen, baina Hernanira joatea erabaki genuen, eta tailer bat zuen etxe batera joan ginen. Han, hamabi urte edo pasatu ditugu, eta hona bueltatu gara.

Betidanik izan zara artista? Noiz hasi zinen eskuak zikitzen?

Eskuak zikitzen, txiki-txikitatik. Baina 14-18 urte bitartean nituenean, institutu garaian, beste era batean ibili nintzen: kontzertuak, festak, jaiak... Ordura arte beti aritu nintzen marrazten. 18 urte nituela, Azkaraten baserri bat zuen eskultore bat ezagutu nuen, Koldo Azpiazu, eta Oteizari buruz hasi zitzaidan hitz egiten. Gauza asko ez nituen ulertzen, baina asko gustatzen zitzaidan. Garai hartan, nire aitaren lagun mina zizelkatzaille profesionala zen, Patricio, eta aitari esan nion ea eskolak emango zizkidan. Horrela hasi nintzen, eta lehenengo eskola izugarria izan zen. “Hau gustatu egiten zait”, pentsatu nuen. Bolada bat eta gero, beste maisu batengana bidali ninduen, eta pixkanaka-pixkanaka mundu horretan sartuz joan nintzen. Ondoren, Debako arte eskolara joan nintzen harria lantzen ikastera, Oteizak aurrera eraman zuen eskolara. Horrez gain, neure kabuz ere eliza batera joaten nintzenean edo zizelkatutako eskultura bat ikustean, ba, aurrean jarri, eta erreparatzen nion nola eginda zegoen...

Beraz, autodidakta, eta maisuen laguntza; akademiak baino gehiago. Nire ikasketak maisuekin eta lanean



izan dira. Oso gaztetatik izan naiz ausarta; 25 urterekin Lasarteko alkatearengana joan nintzen herrian eskultura bat jarri nahi nuela esanez. Lasarten eskulturak jartzen ziren, baina ez zegoen lehiaketarik. Egiten nituen lanak erakutsi nizkion, eta maketa bat eraman nion. Gustatu zitzaion, edo ez dakit, baina handik bi hilabetera deitu egin zidaten, galdetuz herriko gizon ospetsu baten omenez eskultura bat egingo nuen. Ni harrituta geratu nintzen, eta horixe izan zen nire lehen enkargua.

Geroztik, zer landu duzu gehienbat?

Lan handia egin dut eskulturan eta eskultura handian. Lehiaketa batzuk irabazi ditut, mundu horretan ere ibili naiz; eta herri askotan daude nik egindako lanak kalean. Bestalde, enkargu pribatuak-edo direnak egurrean egin ditut.

Bezeroak hala eskatuta?

Bai. Horretan gorabehera asko izan ditugu. Azken urteetan bezeroen artean enpresa batzuk daude. Jendeak erretiroa hartzen duenean, norbait oroigarri gisa zerbait berezia-edo egin nahi diotenean... egiten dizkidate enkarguak. Udal batzuek ere bai, Oreretakoak adibidez, eta bezero pribatu batzuk ere badituz; enpresa gizonak izaten dira, maila altuko postuak dituztenak.

Oialume jatetxeak ere lan bat eskatu zidan, oso lan handia: hasteko, zazpi edo zortzi hilabete pasatu nituen marrazkia egiten; ordura arteko historia kontatzen zuen, hasiera nola izan zen. 75 urte-edo betetzen zituen lekuak, eta guztia sartu behar zen marrazkian: hasierako apustua, soinu-jole bat, festa, garai batean militarrek joaten zirela, oiloak zozketa-tzen zirela... Horiez gain, puntualki dekoratzaileen enkarguak ere izaten ditut, edota kuadrillako lagun bati



Etxean esposizio txiki bat dauka. Nahi duenak, harremanetan jarri eta ikustera joan daiteke. Arg: Labrit.

ezkontzarako opari bat egin nahi diotenenak.

Beka, lehiaketa... gutxi. Artistak bere bidea bilatu behar du?

Bekak oso gutxi, ia ezer ez. Aspaldi ez naizela lehiaketetara aurkeztu, baina aurkezu izan naiz, eta lau edo bost irabazi nituen garai batean. Horrek diru pixka bat ematen dizu, animo batzuk, baina gero, nahiz eta lehiaketa batzuk irabazi, ez dago jarraipenik, nire kasuan behintzat. 2010ean Suitzatik izugarritzko sari batekin bueltatu nintzen, Europa mailan oso garrantzitsua den sari batekin, baina listo: saria irabazi, curriculumeam jartzen duzu...

Ez zaie beharrezko aitortza egiten?

Egunerokoan ez du eraginik. 25 urtekin lehenengo pieza egin nuenean, 26rekin beste bat eskatu zidaten, 28rekin beste bat. Eta pentsatu

“Pasarte bat irakurtzean eta emozioa sentitzean etortzen zait inspirazioa”

nuen: Listo. Hemendik, gora!". Eta hamar urte inguru pasatu nituen enkargu handirik jaso gabe. 30 urte daramatzat gutxi gorabehera lanean, eta era guztitakoak izan ditut. Hasieran beste toki batzuetara joan behar izan nintzen lanera denbora batez.

Orain eskolak ematen dituzu, ezta?

Hemengo etxea egiten hasi ginean, Hernaniko kultur etxean eskolak ematea eskaini zidaten; ez nituen inoiz eman. Hilabete bukaeran diru finko pixka bat ematen du horrek; oso gustura sentitzen naiz. Orain bost urte-edo daramatzat Donostian eskolak ematen.

Ba al daude artistak? Nola dago egoera?

Nire ustez, ez dago maisurik: jende askok zizelkatzen ikasteko eskolak ematen ditu, edo eskulturakoak, baina ez dakite ongi lan egiten. Orduan, hori egiten ez dakien norbaitek transmisio bat egin behar badu, ba, ez du jakingo. Zerbait bai, lauburu bat adibidez. Baina hor geldituko dira.

Zizelketa atzean gelditzen ari da? Ez da eguneratu?

Ez. Adibidez, 2009an Erreterriako artistau azokara gonbidatu ninduten, Euskal Herrian maila handia duena. Nire pieza batzuk eraman nituen, eta kalitatearen eta berrikuntzaren saria eman zidaten. Gainerako zizelkatzaileri nire piezak erakutsi zizkieten, eredu gisa. Ez dakit zergatik gertatzen den hori. Ez garelako jolastera ausartzen?

Zergatik ez ausartu esperimentatzera?

Agian eroso sentitzen direlako; Gipuzkoan behintzat, zizelketa eskola asko daude. Horretan aritzen dira, soldatatzeko batekin... Ez dira asper-

Likena izan du inspirazio iturri Zura lanean. Arg: Labrit.



IORTIA LI INKA ESTETIKA HORTZ ESTETIKA

Juanjo Gaité García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Tellería Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

tzen. Ni aspertu egiten naiz gauza bera errepikatzen.

Piezei beste buelta bat ematen diezulako akaso? Nondik datorkizu inspirazioa?

Talka-ren kasuan, liburu bat irakurtzen ari nintzela, argazki txiki bat ikusi nuen, eta gustatu egin zitzaidan. Bestalde, harri batzuen beste argazki bat ikusi nuen, gainean likena zutela, eta oso ederra iruditu zitzaidan. Beste askotan gertatzen zait liburu bat irakurtzen ari naizenean irudi bat etortzen zaidala burura. Orain, adibidez, sorginen gaiarekin nabil, alabak sorginei buruzko liburu bat oparitu baitit. Ez da izaten deskribapen bat irakurtzen dudalako; pasarte bat irakurri eta emozio pixka bat sentitzen dudanean gertatzen zait.

Edertasuna bilatzen duzu?

Bai, hori da nire ausarkeria edo.

Eta zer espero duzu pentsatzea zure obra bat ikusten duenak?


Hori ja bakoitzaren kontua da. Zu ipintzen bazara obra baten aurrean edertasunak harrapatu zaituelako, nik ez dakit nora eramango zaituen, ez dakit zer daukazu buruan. Nik erakurpen hori lortzen badut, nahikoa. Horrela, nolabaiteko komunikazioa hasten da.

Erakusketa txiki bat duzu etxean bertan. Zein da asmoa?

Asmoa da etxea gero eta gehiago irekitzea. Orduan bai, jendeari erakusteko, bezeroei, eta ikusi nahi duenari.

Araizko dama da zure azken proiektua.

Ez dakit zergatik sartu zaidan buruan. *Araizko dama*-ren bila nabil. Orain eskultura bat egiten ari naiz plastilinarekin, eta asmoa da hori harrira eramatea, tamaina handian, 3 metroan edo. Lortzen dudan diruaren arabera izango da hori. Oraindik proiektu nahiko intimoa da, airean dago. Ez dakit noiz bukatuko dudan, ezta neure kabuz edota udalei laguntza eskatuta egingo dudan ere. Nire asmoa litzateke Zarateko gainean ipintzea, Balerdi eta Mailoak ikusten diren tokian. 16:00etatik



aurrera eguzkiak jotzen du hor, eta eskulturaren forma litzateke eguzkia hartzen.

Eguzkiarekin jolasean.

Bai, eta paisaiarekin. Dama, sorgina, emakumea... dena bat. Emakume bat da nolabaiteko nortasun hori emateko. Gehienetan, eskulturak egiten direnean, gizonezkoak omentzen dira; emakumeak omentzeko oso eskultura gutxi daude. Horretan jarri nahi dut indarra, eta sakonki landu nahi dut. Denbora asko daramat horrekin bueltaka, nire bikotekidea haurdun gelditu zenetik: amatasuna, haurren ongizaterako emakumeak duen garrantzia, gizartea borrokalaria izateko... Nik hori eskulturaren bitartez aldarrika dezaket, hori baita egiten dakidana.

Lasartearra da jaiotzez, baina Azkaraten bizi da gaur egun.
Arg: Labrit.

“Obra baten edertasunak harrapatu bazaitu, nahikoa daukat lortu dudan erakurpen horrekin”

Pornoa: errealitatea ala fikzioa?

Etxarri-Aranazko Sexu eta Ugalketa Osasuna Artatzeko Zentroko kideen laguntzarekin.

Gaur egun hezkuntza sexualarekin lotutako informazio ugari dugula entzun ohi dugu askotan, nerabeek euren gurasoen aldean askoz ere informatuago daudela, eskoletan ere lantzen den gaia dela... Baina urtero erakunde ezberdinetan egiten dituzten inkestak arabera, nerabeen hezkuntza sexualaren iturri nagusia pornoa da.

Save the Children gobernuz kanpoko erakundeak kaleratutako azken ikerketa-emaizten arabera, Euskal Herriko nerabeak, batzaz beste hamabi urterekin hasi ohi dira pornoa kontsumitzen eta hirutik bik nahiko maiz kontsumitzen dute.

Gaur egun, dohainik eta euren mugikorretik modu errazean sar daitezke ikus-entzunezko milioika ordu eskaintzen dituzten plataforma digitalak. Gazteek adinez nagusi izatera iritsi aurretik porno ordu asko ikusten dituzte. Eta eduki hori gero eta biolentagoa da.

José Luis García, psikologo nafarrak kaleratu berri duen *Tus hijos ven porno, ¿qué vas a hacer?* liburuan azaltzen duen moduan, nerabeek lehen musuaren aurretik biolentzia maila altuko pelikula asko ikusi dituzte. Bere ustez, harreman zuzena dago eduki biolento horiekin eszitatearen eta azken urtetan ematen ari diren sexu delitu biolentoen artean.

Emakumearen aurkako biolentzia sustatzen duten edukiak pornoaren industrietatik ezabatzeaz hitz egiten da, kondoiaren erabilera pelikuletan beharrezko bihurtzeaz, gurasoek euren seme-alabek mugikor eta ordenagailuen bitartez kontsultatu ditzaketan atari digitalak kontrolatzeaz...

Baina neurri horiek hartuta ere pornoa sexu hezkuntza iturri fidagarria izanen litzateke? Nerabeengan bakarrik izan al dezake eragin negatiboa? Pornoaren kontsumoak %20 egin du gora munduan, pandemia

hasiz geroztik. Nerabe nahiz helduak dira pornoa kontsumitzen dutenak, gizonezko nahiz emakumezko. Gehienek euren sexu harremanetarako inspirazio iturri ere badela aitortzen dute. Eta hor dago gakoa M^a

Jesús Baena sexu hezitzailearentzat. Berak eman dizkigu pornoa kontsumitzerako orduan kontuan izan beharreko zenbait irizpide.



▶ PORNOA FIKZIOA DA

"Pornoa ikusterako orduan gauza bat oso argi izan behar dugu: pornoa gezurra da, pelikula bat da, fikzioa. Ez da errealitatea. Luze hitz egin dezakegu eduki biolentoen edo bestelako ereduaren egokitasunaz, baina hori baino garrantzitsuagoa da bertan gertatzen dena egia ez dela jakitea. Porno industria bat da eta industria guztiak bezala, bere arauak dauzka eta dirutza mugitzen da atzean."

▶ GIDOIA, MAKILLAJEA, ANTZEZLANA

"Porno beste edozein pelikula ikusten dugun betaurreko berdinekin ikusi behar gogokatu. Eta ez dugu egiten. Pornoarekin gehiago kostatzen zaigu errealitatea eta fikzioa bereiztea. Gudei buruzko film bat ikusterako orduan, pertsonaietako bati biolentziaz burua lehertzen diotenean ez dugu sinisten hori benetan gertatu denik, ez dugu sinisten aktore hori hil egin denik. Ongi barneratuta dugu eszena horien atzean efektu bereziak daudela, Photoshop, makillajea, trikimailu bisualak... Pornoan berdina egiten da. Ez da dena jarraian grabatzen, ordu edo egun luzetako errodaje lana da, makillajea eta bestelako baliabideak ere erabiltzen dira genitalak edo gorputzeko beste zenbait atal handiagoak, txikiagoak, modu batekoak edo besteak direnaren sentsazioa emateko. Aktoreek aurrez adostu eta ikasitako gidoia ere izaten dute. Eta noski plazer oihua ere gidoiaren parte dira."

▶ GUSTUKO IZAN DEZAKEZU EDO EZ

"Porno ikustea gustatzen zaion jende asko dago eta baita gustatzen ez zaiona ere. Eta beste edozein gauzarekin egiten duzun moduan honekin ere berdin jokatzen behar duzu. Beldurrezko pelikulak gustuko ez badituzu ez dituzu zertan ikusi, ezta? Baina ikusi edo ez, egin behar ez duguna da bertan gertatzen dena egia dela sinistu."

► EDUKIAK ALA GUK DITUGUN BETAURREKOAK DIRA ARAZOA?

"Beldurrezko filmetan banpiroak hegan, emakumezko bati odola xurgatzen edo hildakoak euren hilobitrik ateratzen ikusi arren, ez dugu sinesten errealitatean ere horiek egin daitezkeenik edo halakorik gertatzen denik. Pornoaren industriako edukien inguruan asko eztabaidatu daiteke, baina ez dezagun ahaztu pelikula bat denik. Ez dugu inoiz pentsatu banpiroari edo Supermani hegan egiten dutenean bizkarrean zintzilik jausgailu bat jartzea inork pentsa ez dezan hori errealitatean egin dezakeenik. Edo ez diezaiola inori odola xurgatu hori baino biolentzia handiagorik ez dagoelako".

► FIKZIOA ETA ERREALITATEA EZ BEREIZTEAREN ONDORIOAK

"Kontsultara laguntza bila datozen gazte nahiz helduen arazo askoren atzean dagoen arrazoa pornoaren kontsumo desegokia da. Badira euren lehenengo sexu harreman batzuk izan eta gero larrituta etortzen direnak, desioarekin lotutako arazoak dituztelako. Adibidez, pornoa kontsumitzen orduak eman eta gero lehenengo sexu harremanetan ilea duen neska batekin egin dute topo. Ordura arte bestelako gorputz eta egoera eredu batekin erlazionatu dute euren desioa eta errealitatearekin topatzerakoan euren desioa ez da aktibatzen. Baina halakoak ez dira soilik gazteengan ematen. Badira 40 urtetik gorako bikoteak kontsultara etortzen direnak sexu harremanetan arazoak dituztelako. Euren sexu harremanak nolakoak izan beharko luketen azaltzen hasten zaizkidanean ohartzen naiz zenbaterainoko eragina izan duen pornoak. Oso argi izan behar dugu film horietan ikusten duguna errealitateetik oso urrun dagoela".

► HITZ EGIN DEZAGUN

"Gurasoak aztoratu egin ohi dira pornoaren gaia ateratzerakoan. Baina oso garrantzitsua da euren seme-alabekin horretaz hitz egitea eta noizbait ikusiz gero gezurra dela jakin dezatela. Larritu egiten gaitu gure seme-alabek pornoa ikusten dutenaren ideiak, baina hori baino arriskutsuagoa iruditzen zait porno emozionala. Hau da, telebistak eskaintzen dizkigun telesail eta programa askoren birtatez batera egokiak ez diren pertsona eta bikoteen arteko harreman ereduak ikusten ditugu egunero. Horietaz ez da hitz egiten eta askoz ere arriskutsuagoa izan liteke".



Lagunasesoria S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com



TAXILON
661 202 249
(9 plaza)
E-posta: lotamendi5@gmail.com
Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz



▶ GORRITIKO GAZTELUAREN OROITARRIAN

"Nafarroa Berriz Altxa" dinamikaren aldeko argakia egin zuten Gorritiko Gazteluaren oroitarrian, maiatzaren 23an. Nafarroa Garaiko konkistatik 500 urte baino gehiago igaro dira, eta dinamikako kideek Espainiako Estatuak ezarritako eredu autonomikoa gaitzesten dute. Memoria berreskuratzeaz gain, hezkuntza, osasuna, euskara eta abarren gaineko erabakiak hartu nahi dituzte. Manifestazioa egingo dute Iruñean, ekainaren 19an.



▶ BIZIKLETA TAILERRA MARTXAN PRINTZAN

Martxoan abiatu zuten Printzako hainbat kidek bizikleta tailerra, ilusioz eta motibazio handiarekin. Haien helburua da bizikletaren oinarritzko ezagutzak irakastea. Horregatik, zulaketak konpontzeko, bizikleta desmuntatu edo muntatzeko eta abararako laguntza behar izanez gero, haiekin jarri zaitzke harremanetan. Mezu bat bidali behar zaie (larraungoprintza@gmail.com), eta bertan zehaztu zer zalantza edo behar duzun. Bizikleta irteerak egiteko asmoa ere badute.

GOGOR TALDEAREN MAHAI-INGURUA


Urtebete da Gogor Langileen Defentsa Antolatua sortu zutela. Sareez gain, beste hainbat ekintza ere egingen ari dira; besteak beste, joan den hilean mahai-inguru bat antolatu zuten Betelun, eta Gasteizko etxebizitza sindikatua, Iruñeko langile autodefentsa sarea eta Urola erdiko oinarritzko produktuen biltegia gonbidatu zituzten.





'ARAXESEN GAINETIK, MALLOEN AZPITIK', IKUSGAI

Araizko udaletxean estreinatu zuten *Araxesen gainetik, malloen azpitik* dokumentala, eta Intzan eta Azkaraten ere ikusi ahal izan dute dagoeneko bertako herritarrek. Araitz eta Beteluko udalak *Labrit Ondarea*-ren bitartez ondutako lanak oso harrera ona izan du herritarren artean, eta datozen hilabeteetan ere gainerako herrietan proiektatzea da asmoa. Hurrengoa Betelun izango da, hilabete honen bukaeran. Dokumentala udaletxean eskura daiteke.



ALDAZKO HARROBIAREN PROIEKTUA, AZTERTZEN

Larraungo Udalak, Aldazko Kontzejuak eta bailarako ingurumen teknikari Manuel Viñuelasek harrobiaren proiektua aztertzekeo bilkura bat egin zuten. Horgobisa enpresak Larraungo Udalarari eskatu zion proiektua gauzatzeko baimena, eta Nafarroako Gobernuako Industria, Energia eta Harrobiaren Departamentuak planak onartu behar ditu. Gobernuak eskatu dio Horgobisari hainbat puntu egokitzeko, eta moldaketa horiek egin arte ez du proiektua ingurumen sailera bideratuko.

MENDUKILON, LOITZUKO GIZONA

Loitzuko gizonaren argazki erakusketa izango da Mendukilo kobazuloko harrera etxean, ekainaren 22tik uztailaren 7ra bitarte. Nafarroako gizakirik zaharrena da, Erro bailarako Loitzu herriko Errotalde leko koban izandakoa. Bestalde, ekainaren 6an Lur Azpiko eta Koben Nazioarteko Eguna ospatuko dute, jolas eta guzti.



Lekunberriko ur hornikuntza, kexa iturri

Lekunberriko zenbait bizilagunek salatu dute urarengatik asko pagatzen dutela inguruko herrieekin alderatuta. Udalari azalpenak emateko eskatu diote, eta ekainaren 17an, arratsaldeko 19:30ean, herritarrei zuzendutako informazio bilera bat egingo dute kiroldegian. Udalak argudiatu du uraren prezioa Nafarroako batezbestekoen barruan dagoela, eta garrantzitsua dela inbertsioetara nahiz zehar gastuetara doan dirua ere aintzat hartzea.

16



Iñaki Ganuza eta Jose Luis Goldarazena Lekunberriko herritarrak. Arg: Labrit.

Txorrota ireki, eta ur garbia etxean. Izan edateko, kozinatze, dutxatzeko, loreak ureztatze... hamaika gauzatarako erabili ohi da ura, eta hamaika gauzatarako da ezinbesteko gaur egun. Horrek guztiak, baina, kudeaketa bat behar du, eta udala arduratu ohi da horretaz. Kudeaketak eta hornikuntzak, gainera, kostu bat daukate, eta herritarrek hiru hilabetero pagatzen dute txorrota ireki eta ura izateagatik. Alabaina, zenbat ordaintzen du herritar bakoitzak horregatik? Asko ala gutxi?

Lekunberriko bizilagun batzuek adierazi dutenez, herritarrek asko pagatzen dute uragatik inguruko herrieekin konparatuta. Jose Luis Goldarazena 2019. urtean hasi zen dagoeneko uragatik asko pagatzen zuela esanez. Bidaltzen zizkioten uraren fakturak oso garestiak iruditzen zitzaizkion, eta Nafarroako Arartekoari erreklamazio bat bidaltzea erabaki zuen. Goldarazaren arabera, Arartekoak erantzun zion tasak "neurrigabeak" zirela, kontuan hartuta Lekunberriko nahikoa ur badagoela, eta Arartekoak Lekunberriko Udalari uraren prezioa jaisteko iradokizun bat egingo zion. Gerora, Iñaki Ganuza herritarra batu zitzaion bide horretan, eta gaur egun, eta geroztik, biak ari dira uraren prezioa jaisteko eskatzen.

Halaber, Lekunberriko Udalaren bertsioa bestelakoa da. Gorka Azpiroz alkateak azaldu duenez, Arartekoak txostenean ez du esaten tasa altua denik, ezta prezioak jaitsi egin behar direnik ere. Zehazki, honako



hau eskatzen duela esan du Azpirozek: "Ur hornikuntza zerbitzua- ren tasak aztertzeko, eta, ahal den neurrian, tasa horiek murrizteko". Lekunberriko Udalak baieztatu du Arartekoari bost aldiz eman diola eskatutako informazioa, eta bosgarren aldian, dagoeneko, Arartekoak gaia bukatutzat eman duela. Horrez gain, legealdi honetan beste pauso batzuk eman dituztela nabarmendu dute: tasen analisi sakona, txosten publiko bat, udalaren webgunean urari dagokion espazio bat gehitu dute, eta tarte gorena 41m³-tik 66m³ra pasatu dute. Azaldu dute azken horrek prezioa jaiste dakarrela. Gainera, erdiko tarte legealdi honetan izoztu edo geratu zela adierazi dute. "Besteen maila berean gaude. Hortik gorako kontsumoa da aldentzen dena, eta hori da beste erabilera batzuetarako kontsumoa. Guk jasagarritasunaren alde egiten dugu. Ura behar da behar denerako, eta beste kontuak luxu bat dira", adierazi du alkateak.

Azken tarte igo duten arren, Goldarazanak eta Ganuzak uste dute oraindik ere oso garestia dela Lekunberri uragatik pagatzen dena. Beren kabuz, inguruko udalei datuak eskatzen aritu dira, eta taula bat osatu dute lortutako emaitzekin. Haien datuen arabera, hiru lagun bizi diren etxebizitza batek dituen gastuak alderatuta —34m³-rekin egin dute kalkulua, aintzat hartuta, batezbeste, pertsona bakoitzak 11,2m³ gastatzen dituela hiru hilabeteetan— Lekunberri Iribasen baino 129 euro gehiago



ordaintzen dira urtean, Mugiron baino 151 euro gehiago, eta Etxarrin baino 178 euro gehiago, besteak beste. Herri handiago batekin alderatuta, Leitzarekin adibidez, aldea ez da hain handia, baina, hala ere, Lekunberriko garestiagoa da: 88 euro. Azaldu dute 2009tik %50 igo dela hornikuntza tasa, eta ez dakitela udalak zer inbertsio egin dituen diru horrekin guztiarekin.

Gainera, udalari leporatu diote ur hornikuntzaren bidez jasotzen duen dirua gastuak kitatzeko baino gehiago izatea; hau da, martxoaren 10eko 2/1995 foru legeak dioenez, ur hornikuntzaren bidez udalak jasotzen duen dirua soilik erabili daiteke udalak ur hornikuntza hori eskaintzeko dituen gastuak ordaintzeko. Halaber, Goldarazanak eta Ganuzak diotenez, eta apirilaren 26an 2021eko kontu

publikoak berrikusi ostean, Lekunberriko Udalak diru irabaziak jasotzen ditu ur hornikuntzaren bidez: hain zuzen, urtean 260.000 euro inguru.

Salaketa horren aurrean, udalak erantzun du bizilagun horiek ematen dituzten datuak ez direla zuzenak. Azpirozek azaldu duenez, Europako Marko Direktibak, Nilsak, Nafarroako Gobernuak eta beste erakunde askok diote kostuak ez direla urte bakar batean neurtu behar, baizik eta epe luzean, eta egiten diren inbertsioak 5-10 urtetan behin egiten dira. Adibide gisa, alkateak azaldu du hurrengo 5-10 urteetan 3,5 milioi euroko inbertsioak egin beharko direla herrian, eta horrek baliabideak gordetzea, bilatzea eta lortzea dakarrela. "Ez da egia irabaziak daudela. Udal batean ez dago irabazirik, jasotzen den dirua inbertitzeko edota gastuetarako



izaten baita". Gainera, Nafarroako Gobernuak 2018an argitaratutako Hiri Erabileraren Uraren Ziklo Osoa-n, Nafarroako batezbesteko uraren salneurria 0,69 euro/m³ da, eta Lekunberrikoa 0,679 eurokoa.

Hala eta guztiz ere, Goldarazena eta Ganuzak esan dute hainbatetan saiatu direla udalari datu guztiak eskatzen, eta azken udalbatzarretara helburu horrekin joan direla. "Bi gauza eskatzen ditugu: batetik, inbertsioen eta gastuen ordena emateko, ikusteko zertara bideratu duten diru kopuru handi hori, 200.000 euro baino gehiago; bestetik, irabazi horrek erakusten du Arartekoak esandakoa, hau da, tasak jaitsi behar dituztela, eta hori ere eskatzen diogu udalari: saneamenduko eta hornikuntzako tasak jaitzeko", nabarmendu dute bi bizilagunek.

ESTAZIOA ETA IRAKURKETAK

Iribasen dagoen edateko uraren estazioak (ETAP) duen gastuan ere jarri dute arreta Goldarazena eta Ganuzak, zeina Nafarroako Gobernuko dirulaguntza batekin egin zen, haien arabera. Hidroambiente enpresa arduratzen da Iribasen dagoen edateko uraren estazioa kudeatzeaz,

eta, bizi lagun horien arabera, udalak 70.000 euro ordaintzen dizkio enpresari zerbitzu horrengatik. Zerbitzu bera eskaintzen duten enpresen datuak eskatu dituzte, eta adierazi dute badirela 35.000 eta 46.000 eurogatik lan egiten duten enpresak. Horrengatik, ez dute ulertzen zergatik den Hidroambiente horretaz arduratzen dena, eta zergatik ordaintzen duen horrenbeste udalak zerbitzu horrengatik.

Alkatearen arabera, Ertzilla Partzuergoa da hori kudeatzen duena, eta ez udala bera. 2013-2014an, partzuergoak udalari eman zion kudeaketa hori egingo zuen enpresaren aukeraketa egiteko eskumena. Horretarako, legea jarraituta, esleipen publiko bat antolatu zen, eta Hidroambiente irabazi zuen. Lau urteko kontzesioa bukatzean, 2018an, Lekunberriko Udalak berriro atera zuen esleipen prozesua, baina partzuergoak beste ikuspuntu bat zuen, eta azken esleipen hori ez denez egin, baina hala ere ezin denez estazioa kudeatu gabe utzi, Hidroambiente da kudeaketa horrekin jarraitzen duena. Gastuaren kontuari dagokionez, Azpirozek nabarmendu du inportanteena dela uraren kalitatea bermatzea eta urak tratamendu egoki bat jasotzea.

Horrez gain, uraren irakurketari buruz ere badute zeresana. Bizilagunek diote beti ez dutela hiru hilabetean behin egiten, bi edo lau hilabetean behin ere egin dietela, eta horrek prezioak aldatzea dakarrela. Hain justu, iazko azkeneko hiruhilekoarekin dute kexarik handiena. Goldarazena baiezatu du hari azaroan egin ziotela irakurketa. Ondorioz, bi hilabeteko ordainketa ailegatu zitzaion, eta hurrengoan, berriz, lau hilabetekoa. Azpirozek aldaketa hori azaldu du: "Urtea bukatu baino lehen bidali behar dira ordainagiriak, eta, beraz, azkeneko irakurketa hori aurrekotik bakarrik bi hilabeteko tartea dauka, eta, beraz, hurrengoarekin lau hilabete".


HIRUHILEKO 34 M3-KO KONTSUMO ESTIMATURAKO TAULA

SANEAMENDU TASA

Herria	Hornikuntza tasa	Tasa finkoa	Tasa aldagarria	NILSA	Hiruhilekoaren batura	BEZ	Hiruhilekoa guztira	Guztira urtean	Aldea Lekunberriekin urtean
LEKUNBERRI	23,09 €		11,49 €	20,30 €	54,88 €	5,49 €	60,36 €	241,45 €	0,00 €
MUGIRO	20,40 €				20,40 €	2,04 €	22,44 €	89,76 €	-151,69 €
IRIBAS	25,40 €				25,40 €	2,54 €	27,94 €	111,76 €	-129,69 €
ALLI		35,23 €			35,23 €	3,52 €	38,75 €	155,00 €	-86,45 €
ARRUITZ	17,00 €				17,00 €	1,70 €	18,70 €	74,80 €	-166,65 €
ETXARRI	14,28 €				14,28 €	1,43 €	15,71 €	62,83 €	-178,62 €
ARESO		18,75 €		11,25 €	30,00 €	3,00 €	33,00 €	132,00 €	-109,45 €
LEITZA	12,38 €	2,16 €		20,30 €	34,84 €	3,48 €	38,32 €	153,29 €	-88,17 €
IMOTZ	10,54 €	4,38 €		20,30 €	35,22 €	3,52 €	38,74 €	154,96 €	-86,50 €
SAKANA	19,32 €	4,51 €		20,30 €	44,13 €	4,41 €	48,55 €	194,18 €	-47,27 €

Iturria: Jose Luis Goldarazena eta Iñaki Ganuza.

FAKTURAREN BILAKAERA (BEZAREN % 10), UDAL TASAK + SANEAMENDUA ETA SANEAMENDU KANONA (FORALA)



Iturria: Lekunberriko Udala.



Urrezko aizkolarien erakustaldia Lekunberrin

Urrezko Banakako Aizkolaria Txapelketako bi jardunaldi jokatu dira Lekunberrin, maiatzaren 8an eta 23an. Aurrenekoan, Ibai Soroa, Julen Olano eta Goizeder Belza izan ziren sailkatuak. Bigarrenean ere hurrengo jardunaldirako txartela lortu zuen Arribeko Ibai Soroak, eta, harekin batera, Oier Kañameres IV.a eta Hodei Ezpeleta aizkolariek. Finala ekainaren 13an izango da, Azpeitian.

Araxes sokatirako txapeldun



Araxes taldeak txapela irabazi du 4x4 Nafarroako Sokatira Txapelketan, 20 urtez azpiko modalitatean, Berriozarren aurka. Aurretik bigarren eta hirugarren postuak eskuratu bazituen ere, aurreneko aldiz lortu du aurrenekoa. Misto mailan ere parte hartu zuen, baita maila ona erakutsi ere. Oier, Leire, Saioa, Josu, Naroa, Uxue, Ainhoa eta Manex aritu ziren, eta Mattie, Alaitz eta Unai parte hartzaileei laguntzen eta animatzen. Zorionak!

20

Nafarroako F30 Selekzioak Espainiako Txapelketa irabazi du

Nafarroako F30 selekzioak Espainiako Federazioen Txapelketa irabazi du Emakumezkoen Paleta Goma 30M modalitatean. Maddi Galartzak urrea lortu du Valentziaren aurkako hirugarren jokoan, jubeniletan. Maria Eguzkiza, berriz, txapeldunorde geratu da kadeteetan. Paula Gorostiagak, Maria Eguzkizak, Maider Saralegik eta Maddi Galartzak osatutako taldea bikain aritu da. Zorionak!



LAGUNDU MAILOPE
LAGUNDU MAILOPE
LAGUNDU MAILOPE

Mailopeko bazkidea izan nahi duzu?
mailope@labrit.net

NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

CAPIINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxa: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

ekin
rotulación

948 85 32 79

SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

Konstanteak. Bat

Mundua eraldatzen ari dela errealitate bat da, beti izan da. Eraldatze horren abiadura azkarra edo geldoagoa dira ezberdintasun nagusiak, lehengoa zenean eta gaurkoa denean. Gizakia ordea, ez dakit abiadura berean eraldatzen den. Belaunaldien artean amildegia handitzen eta handitzen dijoa, baina noranzkoa ez dago oso argi. Distantzia handiegiek beti eman didate beldurra, komunikazioa lausotzen baita eta deskonexioari beldur diot.

Aldizkaria beraren aldaketa harturik adibide. Luzetik motzerako saltoan, euskal herriko motz eta luze ezagunenak etorri zaizkit burura.

Pilota jokoan ez naiz trebea izan inoiz. Baina frontoiaren goxotasuna gertu jaso dut. Aitonaren ondoan eserita, telebistan pilota ikusten, baratxuri ogitartekoa elkarbanatuz. Amonaren etxe ondoko pareta horiek, patinekin erorita lehen orbaina egin nuen lekua. Ahizparen partiduak asteburuetan. Gabon eguneko bazkari aurreko pilota jokoak, kaleratzen lehena izan eta pilota jasotzaile lanean. Lehengusu eta osaben arteko txapelketak, edozein final baina sutuagoak. Frontoi estalpean igarotako arratsaldeak, mihiaz erraketaz baina gehiago jolastuz. Frontoi eta trinketeak eraldatu eta musika eta alkohola nagusitzen diren oroitzapenak, eta ondoren hura guztia garbitzeko komeri eta lanak. Azokak, erakusketak, antzerkiak, kontzertuak...

Estaliak eta estali gabeko frontoiak, frontoi bihurturiko eliza, arkupe, plaza eta txoko guztiak.



Emakumezkoen Nafarroako Klasikoa Lekunberrin bukatu da

Lekunberrin bukatu zen 2021eko Nafarroako Womens's Elite Classics lasterketako lehen etapa, eta Annemiek Van Vleutenek (Movistar) izan zen azkarrena helmugara ailegatzen. 28 taldek eta 158 korrikalarik parte hartu zuten. Zudairitik abiatu ziren eta zortzi mendate gurutzatu zituzten Lekunberrira ailegatzeko.

Boulderreko lanak udazkenean bukatuko dituzte

Baraibarreko eskola-etxe zaharrean egindako eskalatzeko gunea itxita dago. Izan ere, lehenengo fasean boulderra eraiki zuten arren, irekiera publikorako beharrezkoak diren irisgarritasun arrapala eta sute irteera atondu gabe daude. Arkitektoak lanak urrian bukatzea aurreikusten du.



Beti Kozkorreko talde teknikoa, Izarrara

Beti Kozkor futbol taldean zortzi urte egin eta gero, Rodri Fernandez de Barrena Izarra taldeko entrenatzaile izango da hurrengo denboraldian, eta harekin batera arituko dira Aitor Goikoetxea, Alvaro Etxarri eta Jon Ander Unanua. Izarra Lizarrako futbol taldea da, eta bigarren B mailan jokatzen du.



Joan-etorriak konpainian eta merkeago

Asko dira gurean autoa partekatzen dutenak ikastera edota lanera joateko. Beste hainbat herri txikitan gertatzen den bezalaxe, garraio publikorik ez egoteak herritarrak beren kabuz antolatzerara behartzen ditu. Bizilagunek uste dute garrantzitsua dela arazo horri irtenbide bat ematea eta udalak horretan inplikatzeara.

22

“Desabantaila bakarra koronabirusa da”

Hodei Etxarri, Joseba Astiz, Bingen Begiristain eta Juan Navarro



Eskola berean ikasten dute Hodei Etxarrik, Joseba Astizek, Bingen Begiristainek eta Juan Navarrok, eta horrexegatik erabaki zuten irailan autoan elkarrekin joatea. Hodeik dio abantaila nagusia dela gasolina denen artean pagatzen dutela eta hala bidaiak merkeagoak direla.

Abantailak bai, baina ba al du desabantailarik?

Gaur egun ikusten dudana desabantaila bakarra koronabirusa da. Laurok elkarrekin goazenez egunero denbora “luzez”, kutsatzeko arrisku handiagoa dugu, baina bestela ez dut desabantailarik ikusten.

Hala egin ez bazenute, izango al zenukete ikastera joateko modurik?

Bai, amarekin joateko aukera izango nuke, baina denbora dezente itxaron beharko nuke eskolara sartu baino lehen, ama ordu bat lehenago sartzen baita lanera.

Txandak egiten dituzue?

Orain arte Josebak eraman du autoa, baina duela gutxi Bingenek gidabaimena ateratzea lortu du, eta haren autoan ere joaten gara. Aste batean Bingenek eramaten du, eta bestean, berriz, Josebak. Gastu guztiak laurron artean banatzen ditugu, eta gero bakoitzari ordaintzen diogu ordaindu beharrekoa.

Zer sumatzen duzue faltan?

Autobus gutxi daudela Donostia eta Iruñera joateko, eta Lekunberrira eta ondoko herrietara joateko autoa erabili behar dugula.

Zerk lagunduko luke?

Autobus gehiago egoteak.

Ezagutzen al duzu zuek bezala autoa partekatzen aritzen den jende gehiago?

Bai, nire kuadrillako lagun batzuk, Tolosara ikastera joateko.



“Instituzio publikoek zerbait egin beharko lukete despopolazioa ekiditeko”

Asun Olaetxea, Tere Sotil eta Edurne Martinikorena

Hogei urte inguru igaro dira Asun Olaetxeak, Tere Sotilek eta Edurne Martinikorenak autoa partekatzen dutela Iruñera lanera joateko. Zenbait urtetan, zona-ko beste lagun eta ikasle batzuk ere batu izan zaizkie bidaietan. Abantaila asko ikusten dizkie aukera horri.

Nola okurritu zitzaizuen ideia?

Pentsatu genuen agian ez zuela zentzu handirik hirurak lagunak izanda eta ordutegi berarekin bakoitza bere aldetik joatea. Proposamena afariren baten edo okurrituko zitzaigun. Ez dakigu zehazki.

Zer abantaila ditu autoa partekatzeak?

Abantaila asko ditu: arrisku gutxiago, gastu gutxiago, bidaia lasaiago egiten duzu norberak ez duenean autoa eramaten. Lo eta guzti egin dezakezu horrela.

Nola antolatzen zarete?

Egunero txandaturuz egiten dugu, eta

Excel orri batean apuntatzen dugu nork eramaten duen autoa.

Gastuak denen artean ordaintzen dituzue?

Ez dago gasturik banatu beharrik, bakoitzak bere autoa jartzen baitu tokatzen zaionean. Eta ikasleak gurekin etorri izan direnean edo etortzen direnean, ez diegu ezer kobratzen. Halere, kasu horietan beti egin digute opariren bat ikasturte bukaeran.

Ikusten al duzue gabeziarik?

Gehienok bakoitzaren autoarekin mugitzen garenez, gero eta autobus gutxiago ditugu, eta noizbait beharren bat daukagunean, bestelako aukeraren bat bilatu behar duzu. Eta autorik ez dutenek, gaztetxoek edo helduek, zailtasun handiak dituzte mugitzeko. Pandemia aurretik, Iruñera joateko egunean bi autobus zeuden, eta Donostiara joateko hiru autobus egunero. Orain, berriz, Iruñera joateko bi autobus daude astez, eta asteburuan bat bakarrik. Donostiara joateko autobus bakarra dago egunean.

Garraio publiko gehiago egoteak lagunduko lukeela uste duzue?

Bai, noski, baina gauza da momentu honetan betiko Roncalesa-ri, adibidez, ekonomikoki ez zaiola interesatzen gure herrietatik pasatzea, jende gutxi erabiltzen duelako. Agian, instituzio publikoek (Nafarroako Gobernua, udalek...) despopolazioa ekiditeko zerbait egin beharko lukete autobus gehiago izateko. Despopolazioa egunero dago komunikabide eta Nafar Gobernuako politikarien ahoetan, baina garraioa, hau ekiditeko, arlo garrantzitsu bat da, besteak beste.

Egin al da zerbait azkenaldian?

Orain dela gutxi, gure zonako herrien artean mugitzeko taxi zerbitzua jarri dute hiru udalek (Aritz, Betelu eta Larraun), eta oso zerbitzu beharrezkoa eta ona da. Adibidez, jende heldua medikuntza joateko edo haurrak ere herrietatik eskolaz kanpoko ekintzetara joan-etorriak egiteko ere primeran dago zerbitzua.



“Txoferrak erabakitzen du zein irrati kate jarri”

Imanol Arraras, Ruben Soria, Jexux Oreja eta Juan Luis Etxarri

23.000 km egiten dituzte urtean Imanol Arrarasek, Juan Luis Etxarri, Ruben Soriak eta Jexux Orejak lanera joateko. Auto zahar batekin ibiltzen ziren; egun *renting* auto batean egiten dituzte joan-etorriak.

Gastuak denon artean egiten dituzte, beraz.

Bai, dena lauron artean. Dirua jartzen dugu, eta kito. Oraingo *renting* auto hau Lekunberrikoak izaten du.

Nor duzue txofer?

Eguneko bat, eta oso ongi moldatzen gara horrela. Eztabaida izan genuen irrati jartzerakoan, batzuek futbola jarri nahi zutelako, besteek Euskal Irratia...?? (Euskadi Irratia; Euskalerrria Irratia...) Erabaki genuen txoferrak aukeratuko zuela zein irrati kate jarri eta berogailua zer tenperaturatan jarri.

Noiz hasi zineten autoa partekatzen?

Orain dela 7 urte hiru lagun Beriainera joaten gara lanera, eta laugarrena Orkoienara. Txanda bera genuenez, antolatzen hasi ginen. Lehendabizi auto zahar bat erosi genuen, 2.500 euroan, eta 5 urtean horrekin joan ginen lanera. Nahiko ongi moldatzen ginen. Nik Baraibarrera ekartzen nuen, hemen dik bi lagun ateratzen ginen, beste bat Lekunberri hartzen genuen eta laugarrena bidean.

Zortea izan zenuten laurek txanda bera duzuelako.

Bai, hala da. Baten batek txanda aldatzen badu edo dena delakoa, ba, hark bere kabuz joan behar du lanera. Hiru txanda izaten ditugu: goizez, arratsaldez eta gauez.

Eta gaur egun?

5 urtera-edo autoa izorratu egin zen, eta *renting* auto bat hartu genuen. 208 euro pagatzen ditugu auto horrengatik hilean. Denon artean kontu korronte bat ireki genuen, eta bakoi-tzak 80 euro pagatzen ditu hilabetean; diru horrekin, alokairua eta gasolina pagatzen ditugu.

Garraio publikoa beharrezkoa da?

Lagungarria izango litzateke, baina hemengoak leku desberdinetara joaten garela lanera, eta zaila da hori guztia baloratzen.

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • aitziberalf@hotmail.com

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
948 513 083
696 732 290
aitziberri@hotmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

German Lasarte

ARIBONDO HARATEGIA

Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

AZKARATE



Bertso saio ederra Azkaraten

Bertsolariak plazara salto egiteko gogoz daude, eta entzuleak haiek aditzeko irrikan. Azkaraten izan zuten horretarako aukera, bertso saio bat eskaini baitzuten Erika Lagoma, Xabat Illarregi eta Aitor Irastortza bertsolarien maiatzaren 23an, arratsaldeko 18:00etan. Ainhoa Iriarte eta Kizkitza Mujika aritu ziren gai jartzaile lanetan. Eguraldia lagun, plazan bertan egin ahal izan zuten saioa, eta aurretik izen ematea eskatu zuten.

LEKUNBERRI

1970eko hamarkadaz



Imanol Satrustegi historialariak hitzaldi bat eman zuen Printzan 1970eko hamarkadako ezker iraultzailea Nafarroan izenburupean. Gai horri buruzko tesi bat egin du, eta bertaratu zirenek, Satrustegik esandakoa aditzeaz gain, beren esperientziak eta iritzia emateko eta partekatzeak aukera ere izan zuten.

LARRAUN

Ura eta animaliak bertatik bertara ezagutzen

Ura eta Lurra herri egitasmoak jardue-ra aski erakargarriak egin ditu apirilean: lehenik, Uitziko uraren zikloa ikusi zuten, Albiasu-Lekunberriko anfibio eta narrastiak ere bai, eta, Ibarberri eskolako ikaslerik zaharrenekin, uraren ziklo naturala eta integrala aztertu zuten, Fran Sanz geologoaren laguntzaz. Larraun ibarreko natur baliabideen balioa bistaritzen ari da gisa horretako egitasmoekin!



NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
 Tel.: 948504128
 Fax: 948504377
 nekazaris1@hotmail.com

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
 Ezkontzak
 Ospakizunak
 Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
 20400-TOLOSA 943 577 573
 info@bidegoxo.com

► KOLDO NUÑEZ

Nirea adieraztea lagungarri

Enarak, 49 urte, aspaldi du gaixorik ama eta hau noizik behin ospitale-ratzen dute. Enarak badu 47 urteko ahizpa baina amaren zaintza gehie-na Enarak berak egiten du. Horrela egin dute familian duela 20 bat urte aita hil zenetik. Esfortzua suposatzen dio Enarari eta nahiko luke ahizpa gehiago inplikatzera baina zerbait aipatu dionetan, honek aitzakiak jarri ditu orain arte bezala segitzeko. Enara isildu egin da. Ez du iskanbilari nahi, baina sentitzen du ez amak, ez ahizpak, ez dutela ikusten berak egin ohi duen esfortzua. Sentitzen du ez direla bere tokian jarri. Egoera honekin gero eta nekatuago, gero eta haserreago dago, baina hala ere ez daki nola egin amak eta ahizpak egoera beste modu batean ikusteko. Ia betidanik egin dituzte horrela gauzak. Ez dituzte hitz egiten, gainera, eta poliki poliki egoera zaildu egin da.

Azaldu dudana edo antzekoa, maiz gertatzen zaigu era batera edo bestera. Batzuetan biktima sentitu naiz eta beste batzuetan kontrakoa.

Orain badakit kostatu ohi zaidala ikaragarri besteak bizitzen ari direna ikustea.

Eskolan ezer ikasi baino lehenago, etxean bertan eta eskolan has-tean, sentitzen dutena identifikatzen, ulertzen eta esaten ikasten lagundu beharko genieke umeei. Gero, bizitzan sortzen diren zailtasun askori aurre egiteko oso tres-na lagungarria izango zaie.



ARAITZ-BETELU eta LARRAUN



Iñaki Martiarenak egonaldi artistiko bat egingo du gurean

Iñaki Martiarena ilustratzaile donostiarra gurean izango da udan egonaldi artistiko bat egiten, Udalbiltzak euskarazko sormen lanak sustatzeko mar-txan jarri duen Geuretik Sortuak programaren barruan. 73tik 26 sortzaile aukeratu dituzte, eta horietako bat da Martiarena. Euskal Herriko 30 udalek parte hartuko dute, eta ilustratzailea Araitzen, Betelun eta Larraunen izango da, hiru astez. Oiartzunen egin zuten bigarren aurkezpen ekitaldia.

LEKUNBERRI



Ibil Bedi taldeak bigarren diskoa aurkeztu du

Ibil Bedi musika talde nafarrak bigarren diskoa aurkeztu zuen Printzako lo-rategian: *Beltxarga beltza*. Hamar kantuz osatutako disko bat da, eta bertaratu zirenek izugarri gozatu zuten musika taldearen erritmoaz eta sortu zen giroaz. Bateria, baxua, teklatura, gitarra, biolina eta baita saxoa ere jotzen dituzte Ibil Bediko gazteek, eta horrek nortasun ikur bereizgarri bat ematen dio taldeari.

ESKUALDEA

Mendialdeko azoka ibiltaria

Leitzakoa bertan behera geratu zen arren, Mendialdeko Azoka Ibiltariak aurreneko feriak egin ditu, Arriben eta Aldatzen. Nekazariak, artisauek eta artzainek beren produktuak erakusteko eta saltzeko aukera ezin hobea izan zuten. Lagun asko bertaratu ziren bi azoketara, eta elikagaiak, bitxiak, zapatak, eskulanak eta beste hainbat produktu zeuden eskuragarri. Aldatzen, gainera, Aralar Musika Eskolako kideek girotu zuten azoka. Horrez gain, Habelarte Mendialdeko Baserritarren Elkarteak aurkeztu zuten bietan. Hurrengo Goizuetan izango da, hil honen 27an, igandean.



27

M. Angeles
Urrizalki

iragarkiak,
berriak,
eskelak...

Diario Vasco eta Diario
de Navarrako
Korrespontsala

948513056
699179437

Atabal
okindegia

Era askotako
ogiak eta gozoak

Etxez etxe
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
HARATEGIA

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

**BERTAKO
HARAGIA**

*Txistorra, txorizoa,
saltxitxak,
sukaldatutako
platerak.
Etxera eramateko
zerbiztua ere
eskeintzen dizugu.*

Antigua kalea 7
31890 BETELU

Amavirrek denbora gehien daramaten egoiliar eta langileak omendu ditu

Festa giroan ospatu dute zahar etxearen urteurrena, eta hasieratik lanean eta egoitzan bertan egon direnak omendu nahi izan dituzte.

Hamazazpi urte bete dira Beteluko Amavir zahar etxeak atek ireki zituenetik. Amma Betelu izena zuen hasiera hartan, eta urte hauetan guztietan hainbat eta hainbat langile aritu badira ere bertan, badira hasieratik lanean ari diren hiru: Izaskun Iriarte, Maria Angeles Ezkurdia eta Ainara Zubiria. Egoitzaren hamazazpigarren urteurrena ospatzearekin batera, omenaldi bat ere egin zieten hiru langile horiei, baita Amavirren denbora gehien daraman egoiliarrari ere: Pako Beldarraini.

Urteurrena ospatzeko, egun oso egitaraua antolatu zuten; ez zen musikarik falta, ezta janaririk ere, noski. Goizeko 10:00etan abiatu zuten festa, musikaz alaiturik, eta hamai-ketakoa egiteko orduan egin zieten omenaldia aipatutako lau lagunei. Lore sorta eder batez gain, oparitxo txiki bat ere eman zieten. Eguerdian, bazkari eder bat egin zuten, eta eguerdian jandako guztia gutxi baltitz, 16:30ean txokolate beroa jan

“Orain, beste giro bat dugu, oso giro ona. Ni, behintzat, oso gustura nago.”

zuten. Meriendatu eta gero, Mattie Garaikoetxea eta Idoia Garmendia trikitilarien doinuak aditu ahal izan zituzten. Ramon Arratibel egoiliarrak, gainera, idatzi polit bat irakurri zien guztiei. Eguna behar bezala amaitzeko, sorpresa bat ere izan zuten, eskolako umeek grabatutako bideo bat ikusi baitzuten.

Maria Angeles Ezkurdia eta Ainara Zubiriaren ustez, aldaketa asko gertatu dira hamazazpi urteotan. Gogoan dute hasiera, eta azaldu dute zahar etxeak atek ireki zituenean oso egoiliar gutxi izan zitzutela: hasieran, 3-4 hilabetea, hiru baino ez ziren egon, eta ondoren, 8 lagun egon ziren denbora luzez. Bolada hobek

eta okerragoak izan dituztela azaldu dute, bolada desberdinak, baina oztopoei aurre egitea lortu dute beti. Garai zailetan presio handia sentitu zutela esan dute, presio handia egin zitetela, eta nahiko gogorra izan zela. Egun, berriz, gustura ari dira lanean, giro hobea dutela uste dute, eta lana ere gehiago baloratzen dietela: “Orain egiten dugun lana baloratzen da. Langile falta izan dugu, nahiko justu ibili gara, eta orduan egoera oso bestelakoa zen. Zuzendaritzak egoera aldatu du, eta beste giro bat dugu”, esan du Ezkurdiak. Zubiriak ere iritzi bera du: “Orain beste giro bat dugu, oso giro ona. Ni, behintzat, oso gustura nago”.

Pandemia egoerak goitik behera eraldatu ditu bizimoduak, baita zahar etxeetako egoiliar eta langileentzat ere. Azken hilabete hauek oso gogorak izan diren arren, Amavirreko langileek nabarmendu dute alde onak ere izan dituela: besteak beste, egoiliarrekin duten harremana estu-





tu egin da, sendotu, eta egoiliarrek izugarri eskertzen dute hori. Izan ere, Ezkurdiak esan duenez, Amavir zahar etxea oso gertukoa da, xumea, eta bertan daudenen hartu-emanera ere halakoa da.

Pako Beldarrain izan zen eguneko beste protagonistetako bat. Izatez, Zizurkilgoa (Gipuzkoa) da Beldarrain, han hezi eta hazi zen, baina orain dela hamasei urte etorri zen Beteluko zahar etxera, egoitza ireki eta urtebetera. Askok maite dute zahar etxeak, eta Betelun eta inguruko herrietan ere oso ezaguna da. Orain dela gutxi arte goizero eta arratsaldero paseatzen zuten Betelutik Atallura, bere txakur Txisparekin. Atalloarra tabernan buelta eman, eta zahar etxera bueltatzen zen. Pandemiak asko aldatu du haren egunerokoa, ezin izan baita egoitza atera, baina aurkitu du entretenimendua: "Entretenezko telebista ikusten dut, edo periodikoa irakurri". Zubiriak esan duen bezala, "gure Pako da".

Hilabete latzak izan dira zahar etxe guztientzat, baina pixkanaka-

ka-pixkanaka egoera hobetuz doa, eta ez zaie festarako eta dibertimendurako gogorik falta. Beste asko izan daitezela!



Pako Beldarrain orain dela 16 urte iritsi zen Amavirrera. Arg: Labrit.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

amairu bar

ETXKO PIZZAK,
KOPA BERGZIAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldiro eskaintza bereziak



CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK
FATXADAK
ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

LIBURU-KLIKA, UDAN IRAKURKETAZ GOZATZEKO

Lekunberriko Udalak Liburu-Klika kanpaina abiatuko du udan irakurketa sustatzeko asmoz. Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean izango da, Lekunberriko liburutegi publikoan, baita ingurukoetan ere, hala nola Leitizan Irurtzunen, Lakuntzan, Etxarri Aranatzan eta Arbizun.

Hiru pauso baino ez dira eman behar:



1. Euskarazko liburu bat hautatu, etxetik edo liburutegitik maileguan hartuta, eta irakurri.
2. Sare sozialetan (*Instagram, Facebook, Twitter, Tik Tok, Youtube* edo *Tiwhch*) liburu horren inguruko zerbait aipatu. Ezinbestekoa da izenburua garbi ikustea, baita *#liburu-klika* trola ere. E-postaz ere bidali daiteke euskara zerbitzura.
3. Sareetan argitaratu denaren froga e-postaz bidali euskara zerbitzura.



Antzonia
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martinkoa, GAITZA, Nafarroa
Tel: 649 472 037 - fax: 692 511 057
Mailak.com: malloak.com

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

**AURRERA
TABERNA**
ARALAR, 15
948 60 47 24

**TAXI
SOROA**
609 168 217
Bederatzi plaza

urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE
ADIII TLF BERRIA:
948 51 30 32

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA

696 658 288
LEKUNBERRI

ce consulting
empresarial
ANA RAMOS MARTÍN

GESTORIA
666 939 332
aramos@ceconsulting.es

GALBURU
okindegia - panadería
Egur-labean egina!

Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

▶ AGENDA

EKAINA

- 4 - *Problemática de la vivienda a día de hoy* hitzaldia, PAH Berriozarren eskutik, 18:30ean, Printzan.
-
- 6 - Paseo didaktikoa Larraun ibaian, Nafarroako Basozainekin Fauna eta flora ezagutzeko jarduera. 10:00etan, Larraungo udaletxean.
-
- 11 - Hitzaldia Arturo Elozegi Ekologiako katedradunaren eskutik, *Ura, gizartearen ardura*. 19:00etan, Lekunberriko udaletxean.
-
- 12 - *Zer ari da gertatzen Palestinan?* hitzaldia, BDZ plataformaren eskutik, 18:00etan, Printzan.
-
- 13 - Sendabelarrak ezagutzeko txangoa eta tailerra, Egoitz Garrorekin. Lekunberritik Etxarrirako bidean belarrak bildu eta Etxarrin ukendua egin. 10:00etan, Lekunberriko udaletxe aurrean.
-
- 18 - Haurrentzako ipuin kontaketa musikatua: *Ameli, ipuinen jostuna*. 17:30ean, Atalluko plazan.
-
- 18 - Muxutruk. 16:00etatik 18:30era, Printzan.
-
- 20 - Tailerra: *Berdintasunean egotea esperimintatuko dugu? Nor da hemen extralurtarra? Gizonezkoak ala patriarkatu kapitalista?* Xabier Odriozolaren eskutik, 17:00etan, Printzan.
-
- 26 - Printzaren bigarren urteurrena. 10:00etan, bizikleta martxa; 14:00etan, bertso bazkaria, Eneko Lazkoz eta Saioa Alkaiza bertsolariekin; 18:00etan, Burutik taldearen kontzertua.
-
- 27 - *Mailoen sorburua* txango didaktikoa, Aldatz eta Lekunberri arteko ibilaldi geologikoa. Aldazko iturrian, 10:00etan.

▶ MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA

▶ Irurtzungo Pikuxar Elkarteak taberna berrirako sukaldari bila dabil: Interesa baduzu bidali zure CVA pikutaberna@gmail.com helbidera. Astean 12 orduko lanaldia da, txandaka. Beharrezkoak dira jarrera

proaktiboa eta lanean autonomia edukitzea, bestalde, euskara jakitea eta sukaldaritzan esperientzia izatea baloratuko dira.

GAZTEOK ELKAR ZAINDUZ

Larraungo HAZIAk, Gizarte Zerbitzuak, eta Larraungo eta Lekunberriko udalek antolatuta.

- 11 - Drogak eta sexualitatea, Hegoak elkartearen eskutik. Larraungo udaletxean, 18:00etan.
-
- 18 - Antisorgailuak eta sexu transmisiozko gaixotasunak, Jesu Baena sexologo eta erizainaren eskutik. Lekunberriko udaletxean, 18:00etan.
-
- 29 - Suizidioa, Besarkadak elkartearen eskutik. Allin, 18:00etan.

LARRAUNGO EGUNA

19 larunbata:

- 10:30ean.** Pilota partidak Uitziko plazan.
- 12:00etan.** Larraungo erraldioen konpartsa, Uitzin (Eguraldi txarra egiten badu, Aldazko frontoian eskainiko dute saioa).
- 17:00etan.** *Urpekakariak* antzezlan, Oderitzen (Eguraldi txarra egiten badu, Baraibarko frontoian egingen da saioa)
- 19:00etan.** Bertso saioa Amets Arzallus, Eneko Lazkoz eta Ekhiñe Zapiain bertsolariekin, Astitzen (Eguraldi txarra egiten badu, Baraibarko elizan egingen da saioa).

20 igandea:

- 11:00etan.** Haurrentzako jolasak Jokai taldeak gidatuta, Etxarrin (Eguraldi txarra egiten badu, Gorritiko frontoian izanen dira).
- 19:00etan.** Kontzertua Albiasun: Ane Martija bakarlarria eta Bai zera! taldea (Eguraldi txarra egiten badu, Arruizko frontoian izanen da saioa).



Etxe bat



bazkide bat



Beteluko Mariaje Goikoetxea Iriarte aspalditik da Mailopeko bazkide, eta ale honetako zozketako sariduna izan da. Astizko Mendukilo kobazulorako bi sarrera jasoko ditu. Zorionak!

EGIN ZAITEZ MAILOPEKO BAZKIDE ETA
ZUZENEAN BI HILABETERO EGINEN DIREN
ZOKKETETAN PARTE HARTUKO DUZU!

MAILOPE

BAZKIDETZA EGITEKO BIDEAK:
MAILOPE@LABRIT.NET

638 652 339

[HTTPS://MAILOPE.EUS/BAZKIDETZA/](https://mailope.eus/bazkidetza/)